Bergarako Udala

BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

BERGARAKO UDALERRIAN, BASERRI-BIDE PUBLIKOETAN, 120 KM-KO IBILBIDEAN, ERTZ BIETAKO SASTRAKAK KENDU ETA GARBITZEKO LANAK EGITEA

AURKIBIDEA

I. KONTRATUAREN XEDEA

II. HIRIGINTZA-EGOERA

III. EXEKUZIO-EPEA

IV. BERME-EPEA

V. AURREKONTUA

VI. ZUINKETA ETA LURSAILAREN ERABILGARRITASUNA

VII. KONTRATUAREN ALDAKETAK

VIII. ZERBITZUA GAUZATZEKO BALDINTZAK

IX. HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK ETA GIZARTE-IRIZPIDEAK

Bergarako Udala

BERGARAKO UDALERRIAN, BASERRI-BIDE PUBLIKOETAN, 120 KM-KO IBILBIDEAN, ERTZ BIETAKO SASTRAKAK KENDU ETA GARBITZEKO LANAK EGITEA

I. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren helburua da Bergarako udalerrian, baserri-bide publikoetan, 105 km-ko ibilbidean, ertz bietako sastrakak kendu eta garbitzeko lanak egitea (ikusi I. eranskineko planoa), betiere baldintza teknikoen plegu honetan zehaztutakoaren arabera. Horrela, 120 kilometro horietatik 15 kilometrotan ertz bietako sastrakak kendu eta garbitzeaz gain, arekak ere garbitu beharko dira (ikusi I. Eranskineko planoa).

Plegu honen xede den exekuzio-aldian, edozein alderdik bide publikoko tarte bakoitzerako finkatutako azaleren neurketa zehatzari buruz egindako erreklamazio orori bidegabe iritziko zaio. Azalera-neurketa guztiak, banaka eta oro har, zuzentzat joko dira ondorio guztietarako.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 28. artikuluan dioenari jarraituz, zerbitzuaren exekuzio-proposamenean dagoen memorian honako hauek justifikatu dira: erakundearen xedeak; kontratuaren bidez bete beharreko premia administratiboen izaera eta hedadura; premiak asetzera begira xedearen eta edukiaren egokitasuna; eta kontuan hartutako beste edozein motatako faktoreak.

CPV kodea: 905224006

II. HIRIGINTZA-EGOERA

Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra behin betiko onartu zen Bergarako Udalaren 2009ko maiatzaren 26ko osoko bilkuran, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2009ko uztailaren 27an. Ondoren, 2012ko azaroaren 12ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez, behin betiko onarpena eman zitzaion Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren lehen aldaketaren dokumentuari, eta 2012ko abenduaren 17ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Zerbitzuaren jarduera-eremua Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko lurzoru urbanizaezinean dago.

Proposatutako jarduketa bat dator jardun behar den eremurako indarrean dagoen hirigintza-araudiarekin.

III. EXEKUZIO-EPEA

Kontratatutako zerbitzua ekain, uztail eta abuztuko hilabeteen artean gauzatuko da. Lan horiekin hasi aurretik, dagokion zuinketa-akta formalizatuko da.

IV. BERME-EPEA

Kontratuaren xede den prestazioa bukatu eta gehienez ere BI (2) HILABETEKO epean, prestazioaren harrera-egintza formala eta positiboa egingo da Bergarako udaletxean, eta bermea osorik edo zati batean itzuliko zaio adjudikazio-hartzaileari baldin eta kontratuaren betebeharrak egunean baditu.

V. AURREKONTUA

Proiektuaren aurrekontua ondoren zehazten da eta bertan sarturik dago, halaber, honako hauetatik sorturiko kostua: Segurtasun eta Osasun Azterlana, Kalitate Kontrolaren Programa eta Hondakinak Kudeatzeko Azterlana.

ZUZENEKO GASTUAK:	48.198,34
ZEHARKAKO GASTUAK	7.735,54
ETEKIN INDUSTRIALA (% 6)	3.570,25
BEZ (% 21)	12.495,87
BATURA GUZTIRA	72.000,00

Kontrata edo lizitazio-oinarriaren bidezko exekuzio-aurrekontua –gastu orokorren % 13, industria-etekinaren % 6 eta BEZaren % 21 barne– diru-kopuru hau da: 72.000 euro.

VI. ZUINKETA ETA LURSAILAREN ERABILGARRITASUNA

Zerbitzuaren tokiaren egiaztapena (zuinketa-akta) hilabete bateko epean egingo dute –kontratua sinatzen denetik aurrera– lanen egilea den enpresaren ordezkariak eta Bergarako Udalak izendatutako teknikariak. Zerbitzua ematen hasi aurretik, enpresa adjudikazio-hartzaileak lantokia irekitzeari buruzko jakinarazpena eta baliabide prebentiboaren izendapena aurkeztu beharko ditu udaletxean.

Lursailen erabilgarritasuna: Jarduera garatuko da erabilera eta zerbitzu publikoko bideetan (jabari publikoa).

VII. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Herri-onurako arrazoiak direla-eta, Bergarako Udalak kontratua aldatzea izango du Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 205. artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzen bada, eta betiere lizitazioaren eta adjudikazioaren funtsezko baldintzak aldatzen ez baditu.

Kontratua aldatzeko honako kausa hau aurreikusten da:

- Udalaren borondatearen menpe ez dauden arrazoiengatik, aurreikusitako beharra baino behar handiagoa izatea (sastraka-garbiketa kilometro gehiagotan egin behar izatea). Horrenbestez, urteko prezioa % 20 igo ahal izango da gehienez ere.

Bergarako Udala

Bestalde, kontuan hartuta plegu honetan prezioa gauzatze-unitateen bidez zehaztuko dela (hau da, kilometroen bidez), ez da aldaketatzat hartuko prestazioa behar bezala gauzatzerakoan bariaziorik gertatzen bada soil-soilik benetan gauzatutako unitateen kopuruan –kontratuan aurreikusitako unitateen kopuruan–; bariazio horiek likidazioan jaso ahal izango dira, betiere gastuaren gehikuntzak ez badu gainditzen kontratuaren prezioaren ehuneko 10a.

VIII. ZERBITZUA GAUZATZEKO BALDINTZAK

VIII.1. Zerbitzua ematen hasi aurretik

a.- Kontratista Udalarekin bilduko da eta egin beharreko lanen plan bat finkatuko du, gehienez ere 5 egun balioduneko epean –kontratua formalizatzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita–.Plan horrek banakatuta jasoko ditu egin beharreko lan guztiak.

b.- Babes-hesia jarri beharko da. Hesiaren antolamenduak, dimentsioak eta ezaugarriek Udaleko Zerbitzu Teknikoen oniritzia izan beharko dute, eta baita oinezkoentzako pasabideen eta saihesbideen soluzioek ere.

c.- Enpresak solaskide bakar bat izendatuko du kontratuaren exekuzioaren jarraipena eta koordinazioa egiteko.

VIII.2. Zerbitzua ematean

a.- Zerbitzua gehienez ere hiru (3) egunez eten ahal izango da.

b.- Ezingo da hondakinik bota baimendu gabeko zabortegietan; berariaz debekatuta dago.

c.- Zereginak. Normalean, sasiak garbitzeko makinekin egingo da eragiketa. Horretarako, ebaki aurretik, ebaki beharreko eremuan dauden harriak, obra-hondakinak edo hondakinak kendu behar dira. Lan-zati hori eragiketan sartuta dago. Makinekin irisgarriak ez diren eremuak sasi-garbitzeko eskuzko makinekin moztuko dira, eta hori guztia sega-eragiketaren atal bat izango da

Segatzeko makinak moztutako belarra birrintzen ez badu, hondakinak bildu eta zabortegira eraman beharko dira.

Berez hazten diren zuhaitz txikiak kendu egingo dira haien enborrak zortzi (8) zentimetro edo gutxiagoko diametroa badute, lursailetik metro bateko (1) altueran neurtuta, erabili beharreko bitartekoak edozein direla ere.

Areka ez da garbituko, eta oztopoak, lurrak eta sastrakak ere ez dira kendu beharko.

d.- Behar diren baliabideak: Enpresa adjudikazio-hartzaileak behar diren baliabide materialak jarri beharko ditu plegu hauetan ezarritako epean zerbitzua emateko (sasi-garbitzeko makina, lorezaintzako eta lur-sailak garbitzeko materiala, lekualdaketarako ibilgailuak). Era berean, kontratuaren xedea betetzeko behar diren giza baliabideak erabiliko ditu.

e.- Hondakindegiak: Kontratista adjudikazio-hartzaileak bilatu eta ordainduko ditu hondakindegiak. Lanak bukatutakoan, kontratistak edozein hondakin kudeatzaile baimenduari entregatu izanaren frogagiriak aurkeztu beharko ditu.

f.- Lanak ikuskatzea. Ikuskapen bateratuak egingo dituzte Udalak eta Kontratistak. Plegu honetan jaso gabeko lanetarako, jardunbide egokiak eta Udalak idatziz emango dituen aginduak hartuko dira kontuan.

Neurtzeko orduan, behar bezala segatu diren metro karratuen arabera neurtuko da.

Prezioan sartzen dira beharrezko lan guztiak, erabilitako materialak eta obra-unitateak, seinaleztapena –hala badagokio–, garraioak, eta baita lanen erreferentzia emateko, exekuzio-baldintzak egiaztatzeko eta informazioa emateko egin behar diren mota guztietako zereginak ere.

g.- Babes-hesiaren gainean, espazio publikotik ondo ikusteko moduko tokian, bi errotulu edo kartel jarriko dira, udal zerbitzu teknikoekin adostuta.

VIII.3.- Zerbitzu ematea amaitutakoan

Kontratatutako zerbitzua emateko erabilitako soberako material eta gainerako elementu osagarri guztiak kendu beharko ditu. Horrez gain, hala badagokio, zoladura, zuhaitzak, hoditeriak eta zerbitzu-emateak eragindako beste hirigintza-elementu guztiak garbitu edo konpondu beharko ditu.

IX. - HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK ETA GIZARTE-IRIZPIDEAK

Enpresa adjudikazio-hartzaileak jarraitu egin beharko ditu Bergarako Udalak Euskararen Erabilera Sustatzeko Planean jasotako hizkuntza-irizpideak; bereziki, hizkuntza paisaiako elementuei dagokienez (errotulu, argibide, herritarrentzako oharrak...).

Horrenbestez, elementu horiek euskaraz jarriko dira piktogramaz lagunduta, piktogramaren bitartez ulergarriak direnean. Halaber, euskara hutsean jarriko dira mezuak ezagunak edo berez ulergarriak direnean: euskaraz eta gaztelaniaz antzekoak direlako etab.

Aurreko bi kasu horiek gertatzen ez badira, ele bietan jarriko dira (euskaraz eta gaztelaniaz) euskarari lehentasuna emanez, bai kokalekuaren aldetik, bai neurriaren aldetik.

Halaber, euskarazko testuen egokitasuna zaindu beharko da eta horretarako Udaleko Euskara Zerbitzuaren aholkularitza eskatu ahal izango da.

Udalaren ohiko lan-hizkuntza euskara izanik, kontratatutako enpresaren eta udalaren arteko harreman administratiboak euskaraz bideratuko dira normalean, bai ahoz eta bai idatziz.

Udaleko Bulego Teknikoa eta, behar izanez gero, Euskara Zerbitzua arduratuko dira hizkuntza-irizpideon gaineko zehaztasunak azaltzeaz eta betetzearen jarraipena egiteaz.

DILIGENTZIA: Jasota gera dadin Bergarako udalerrian, baserri-bide publikoetan, 120 km-ko ibilbidean, ertz bietako sastrakak kendu eta garbitzeko lanak kontratatzeko preskripzio teknikoen plegu hau 2024ko otsailaren 15ean emandako dekretu baten bidez onartutakoa dela.

Bergaran, 2024ko otsailaren 15ean

IDAZKARIA

BERGARAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE BERGARA
SECRETARIA
IDAZKARITZA

Bergarako
Udala

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS

EJECUCIÓN DEL DESBROCE Y LIMPIEZA DE AMBAS MÁRGENES DE CAMINOS PÚBLICOS RURALES EN 120 KM DE RECORRIDO EN EL MUNICIPIO DE BERGARA

ÍNDICE

I. OBJETO DEL CONTRATO
II. SITUACIÓN URBANÍSTICA
III. PLAZO DE EJECUCIÓN
IV. PLAZO DE GARANTÍA
V. PRESUPUESTO
VI. REPLANTEO Y DISPONIBILIDAD DEL TERRENO
VII. MODIFICACIONES DEL CONTRATO
VIII. CONDICIONES PARA LA EJECUCIÓN DEL SERVICIO
IX. CRITERIOS LINGÜÍSTICOS Y SOCIALES

Bergarako Udala

EJECUCIÓN DEL DESBROCE Y LIMPIEZA DE AMBAS MÁRGENES DE CAMINOS PÚBLICOS RURALES EN 120 KM DE RECORRIDO EN EL MUNICIPIO DE BERGARA

I. OBJETO DEL CONTRATO

Constituye objeto del contrato la ejecución del desbroce y limpieza de ambas márgenes de caminos públicos rurales en 120 km de recorrido en el municipio de Bergara (ver plano del anexo I), de acuerdo a las determinaciones técnicas que se detallan en el presente pliego de prescripciones técnicas. Así, en 15 kilómetros -de los expresados 120- se procederá además del desbroce y limpieza de ambas márgenes, a la limpieza de las cunetas (ver plano del Anexo I).

Durante el periodo de ejecución objeto del presente Pliego, se considerará improcedente cualquier reclamación actuada por cualquiera de las partes respecto a la exacta medición de las superficies fijadas para cada tramo de camino público, aceptándose individual y globalmente todas ellas como correctas a todos los efectos.

En la Memoria contenida en la propuesta de ejecución del servicio se justifican, conforme a lo señalado en el artículo 28 de la Ley de Contratos del Sector Público, los fines institucionales, la naturaleza y extensión de las necesidades administrativas a satisfacer mediante el contrato, la idoneidad de su objeto y contenido para satisfacerlas, así como los factores de todo orden tenidos en cuenta.

Código CPV: 905224006

II. SITUACIÓN URBANÍSTICA

El Plan General de Ordenación Urbana de Bergara fue aprobado definitivamente en sesión plenaria del ayuntamiento de Bergara de 26 de mayo de 2009 y se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 27 de julio de 2009. Posteriormente, mediante acuerdo plenario de 12 de noviembre de 2012 se aprobó definitivamente el documento de primera modificación del Plan General de Ordenación Urbana de Bergara y publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 17 de diciembre de 2012.

El ámbito de actuación del servicio se sitúa sobre suelo no urbanizable del Plan General de Ordenación Urbana de Bergara.

La actuación propuesta se adecua a la normativa urbanística vigente para el ámbito en el que se va a actuar.

III. PLAZO DE EJECUCIÓN

El servicio contratado se ejecutará entre los meses de junio, julio y agosto. Se formalizará previamente al inicio de los expresados trabajos el correspondiente acta de replanteo.

IV. PLAZO DE GARANTÍA

En el plazo máximo de DOS (2) MESES desde la finalización de la prestación objeto del contrato se producirá el acto formal y positivo de recepción de la misma, que se llevará a cabo en el Ayuntamiento de Bergara, procediéndose a la devolución total o parcial de la garantía a la adjudicataria, si esta estuviere al corriente en el cumplimiento de las obligaciones contractuales.

V. PRESUPUESTO

El presupuesto del proyecto se detalla a continuación y en el mismo se incluye también el costo derivado del Plan de Seguridad y Salud, del Programa de Control de Calidad y Estudio de Gestión de Residuos.

GASTOS DIRECTOS:	48.198,34
GASTOS INDIRECTOS	7.735,54
BENEFICIO INDUSTRIAL	3.570,25
IVA (21%)	12.495,87
SUMA TOTAL	72.000,00

El presupuesto de ejecución por contrata o base de licitación, incluido el 13% de gastos generales, 6% de BI y el 21% de IVA, asciende a la cantidad de 72.000 euros.

VI. REPLANTEO Y DISPONIBILIDAD DEL TERRENO

La comprobación del replanteo del servicio se realizará dentro del plazo de un mes a partir de la formalización del contrato, por el representante de la empresa ejecutora y por el facultativo designado por el Ayuntamiento de Bergara. La empresa adjudicataria deberá presentar en el Ayuntamiento, antes del inicio de la prestación del servicio, la comunicación referente a la apertura del centro de trabajo y el nombramiento de recurso preventivo.

Disponibilidad de los terrenos: La actuación se realizará en caminos de uso y servicio público (dominio público).

VII. MODIFICACIONES DEL CONTRATO

El Ayuntamiento de Bergara podrá modificar el contrato por razones de interés público cuando concurra alguna de las circunstancias previstas en el artículo 205 de la Ley de Contratos del Sector Público y siempre que con ello no se alteren las condiciones esenciales de la licitación y adjudicación.

Se prevé la siguiente causa de modificación del contrato:

- Que por razones que no dependen de la voluntad municipal, la necesidad supere a las necesidades previstas (necesidad de desbrozar más kilómetros). Así, el precio anual podrá ser incrementado en un 20% como máximo.

Bergarako
Udala

Por otro lado, considerando que en el presente pliego la determinación del precio se realiza mediante unidades de ejecución (kilómetros), no tendrán la consideración de modificaciones la variación que durante la correcta ejecución de la prestación se produzca exclusivamente en el número de unidades realmente ejecutadas sobre las previstas en el contrato, las cuales podrán ser recogidas en la liquidación, siempre que no representen un incremento del gasto superior al 10 por ciento del precio del contrato.

VIII. CONDICIONES PARA LA EJECUCIÓN DEL SERVICIO

VIII.1. Antes del Inicio de la prestación del servicio

a.- El contratista se reunirá con el Ayuntamiento y fijará un Plan de los trabajos a realizar en el plazo máximo de 5 días hábiles desde el día siguiente a la fecha de formalización del contrato. Este Plan contemplará cada uno de los trabajos a realizar desglosados

b.- Deberá colocarse la valla protectora. La disposición, dimensión y características de la valla, así como la solución de pasos peatonales y desvíos, deberá obtener el visto bueno de los Servicios Técnicos Municipales.

c.- La empresa nombrará un interlocutor único para el seguimiento y coordinación de la ejecución del contrato.

VIII.2. En el Transcurso de la prestación del servicio

a.- La interrupción máxima de la prestación del servicio no podrá ser superior a tres (3) días.

b.- Se prohíbe expresamente depositar los escombros en vertederos no autorizados.

c.- Tareas. La operación se hará, ordinariamente con máquinas desbrozadoras. A este efecto, previamente a segar hay que retirar las piedras, escombros o desperdicios que existan en la zona a segar. Esta parte de trabajo está incluida en la operación. Las zonas que no sean accesibles con las máquinas se segarán con desbrozadoras manuales, formando todo ello parte de la operación de siega.

Si la máquina segadora no tritura la hierba cortada la operación incluye la recogida de residuos y evacuación a vertedero

Se eliminará el pequeño arbolado de crecimiento espontáneo cuyo tronco tenga un diámetro igual o inferior a ocho (8) centímetros, medidos a una altura de un (1) metro sobre el terreno, independientemente de los medios a emplear.

No se realizarán limpiezas de cuneta, ni se tendrán que eliminar los obstáculos, tierras y maleza.

d.- Recursos necesarios: La empresa adjudicataria deberá destinar los recursos materiales necesarios (desbrozadora, material de jardinería y de limpieza de terrenos, vehículos para el traslado) para acometer el servicio en el plazo establecido en los presentes pliegos. Asimismo, destinará los recursos humanos necesarios para el cumplimiento del objeto contractual.

e.- Vertederos: La búsqueda de vertederos y su abono será por cuenta del contratista adjudicatario. Al final de los trabajos, el contratista deberá de aporta la justificación documental de la entrega de cualquier residuo al gestor autorizado.

f.- Inspección de los trabajos. Se realizarán inspecciones conjuntas por parte del Ayuntamiento y el Contratista. Para los trabajos no consignados en este Pliego, se atenderá a las buenas prácticas y a las órdenes que por escrito que serán dadas por el Ayuntamiento.

La medición se hará por los m2 que hayan sido debidamente segados.

El precio comprende la totalidad de los trabajos necesarios, materiales y unidades de obra empleados, señalización si fuera el caso, transportes, así como las tareas de todo tipo que hayan de realizarse para referenciar los trabajos, comprobar las condiciones de ejecución y reseñar la información.

g.- .- Se dispondrá sobre la valla de protección, en lugar visible desde el espacio público, dos rótulos o carteles, de acuerdo con los servicios técnicos municipales.

VIII.3.- Finalizada la prestación del servicio

Deberá retirar todos los materiales sobrantes y demás elementos auxiliares utilizados en la prestación del servicio contratado. Asimismo, en su caso, deberá limpiar o reparar el pavimento, arbolado, conducciones y cuantos otros elementos urbanísticos hubiesen resultado afectados por la prestación del servicio.

IX. - CRITERIOS LINGÜÍSTICOS Y SOCIALES

La empresa adjudicataria deberá cumplir los criterios lingüísticos que el Ayuntamiento de Bergara tiene establecidos en el Plan para la Promoción del Uso del Euskera, especialmente en lo que respecta al paisaje lingüístico (rótulos, carteles, informaciones públicas,...).

Por tanto, dichos elementos se colocarán en euskera acompañados de pictogramas, cuando mediante el pictograma se entienda el mensaje. Se pondrán, asimismo, en euskera cuando el mensaje sea de por sí entendible: léxico similar en euskera y castellano, etc.

Cuando no se den los dos casos anteriores, se colocarán en bilingüe (euskera y castellano) dando prioridad al euskera, tanto con la ubicación como con las medidas.

Asimismo, se deberá cuidar la corrección de los textos en euskera, para lo cual se podrá solicitar asesoramiento en el Servicio Municipal de Euskera.

La lengua de trabajo habitual en el ayuntamiento es el euskera, de modo que las relaciones administrativas entre la empresa contratada y el ayuntamiento se harán normalmente en euskera, tanto las orales como las escritas.

La Oficina Técnica Municipal y, si fuera preciso, el Servicio de Euskera se responsabilizarán de explicar los pormenores relacionados con estos criterios lingüísticos, así como de realizar el seguimiento de su cumplimiento.


Bergarako
Udala

DILIGENCIA: Para hacer constar que este pliego de prescripciones técnicas para la contratación de la ejecución del desbroce y limpieza de ambas márgenes de caminos públicos rurales en 120 km de recorrido en el municipio de Bergara ha sido aprobado mediante decreto emitido el día 15 de febrero de 2024.

Bergara, a 15 de febrero de 2024

LA SECRETARIA

BERGARAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE BERGARA
SECRETARIA
IDAZKARITZA



— Desbrozea (105km)
--- Desbrozea + Areka garbiketa (15km)
⬚ Auzoak

I. ERANSKINA / ANEXO I
-Auzoetako bideen garbiketa-

DATA
2024ko urtarrila

Borgarako Udala